

HIZKUNTZA BAKARRA ALA ANIZTASUNA?

Deskribapena: Ordiziko herritarrak ageri dira kaleetan zehar eta ondoren, Kike herritar horietako batzuekin hizketan agertzen da.

Kike: “Munduan, hizkuntza bakarra izatea onerako ala txarrerako izango litzake?”

Lehenengo emakumezkoa: “Ba, nire ustez txarrerako! Nahiko aspergarria izango litzeke.”

Lehenengo gizonezkoa: “Hombre, nahiko zaile da hizkuntza bat izatea baino nik, negatio desde luego, euskara baldin bada askoz hobe!”

Bigarren emakumezkoa: “Pentsatzen det bakoitzak bere hizkuntzari, e, nola esaten da... kontserbatu edo...”

Kike: “mantendu edo...”

Bigarren emakumezkoa: “mantendu edo in behar litzekela, ordun bat, ba ez.”

Hirugarren emakumezkoa: “Neretzako oso ondo, primeran! Ba, euskera balitz, primeran!”

Lehenengo bikoteko emakumezkoa (ingelesez): “Izugarria izango litzatekeela uste dut, hizkuntza ezinbestekoa baita norberaren kultura eta norbere burua adierazteko, eta aniztasuna beharrezkoa dugu.”

Bigarren bikoteko gizonezkoa: “Neri iruditzen zait erabateko aburritua izango litzatekeela, hizkuntza bakarra? Ez dakit, ez naiz situatzen, ez dakit ba...”

Lehenengo bikoteko gizonezkoa (ingelesez): “Supermerkatura fruta erostera jutea bezala da. Nik laranjak gustuko ditut, baina baita fruta asko gehiago ere! Laranjak bakarrik izango bagenitu, mundua zeharo aspergarria izango litzateke.”

Bigarren gizonezkoa (gaztelaniaz): “Ba oso ondo irudituko litzaidake! Edozein tokira zoazela hizkuntzarena arazo handia baita. Ni esperantoa ikasten aritu nintzen baina hark ez zuen aurrera egin. Baina hizkuntza bakarra izatea? Bikaina irudituko litzaidake.”

Bigarren bikoteko emakumezkoa: “Hizkuntza bakar horretan ulertuko al ginake?”

Bigarren bikoteko gizonezkoa: “bueno...”

Bigarren bikoteko emakumezkoa: “Beste gauza bat, andaluz batekin hitz egiten degu eta...”

Bigarren bikoteko gizonezkoa: “besterik ez bada ere, ulertu beharko ginake, ez?”

Hirugarren bikoteko lehenengo emakumezkoa: “Agian errazagoa izango litzateke, ba gero komertzioak eta egiteko orduan.”

Hirugarren gizonezkoa (frantsesez): “Munduan hizkuntza bakarra? Horrek komunikaziorako askoz ere aukera gehiago eskainiko lituzke.”

Hirugarren bikoteko lehenengo emakumezkoa: “Nire ustez mundua sosoagoa izango zen.”

Hirugarren bikoteko bigarren emakumezkoa: “Kultur arloak eta dira oso inportanteak bakoitzak bere hizkuntza izatea eta elkarren artean kulturak banatzea.”

Laugarren gizonezkoa (gaztelaniaz): “Niretzat egokiena, guztiok hizkuntza bera hitz egitea litzateke.”

Laugarren bikoteko mutila (gaztelaniaz): “Ni ez nintzateke horrekin ados egongo, hizkuntza bakarra izatean, gaur egun dugun kultura aniztasun handia galduko baitzen.”

Laugarren bikoteko neska (gaztelaniaz): “Hizkuntza global bat egon dadila, herrialde guztietan derrigorrezkoa, baina bakoitzak bere jatorrizko hizkuntza mantenduz, nortasuna ematen diona baita.”

Kike: “Eta bakarra balitz, zein irudituko litzaizuke izango litzakela?”

Lehenengo emakumezkoa: “Ba gurea.”

Bigarren emakumezkoa: “Ba gurea, ez? Euskeraz!”

Hirugarren bikoteko bigarren emakumezkoa: “Ingelesa nire ustez.”

Hirugarren bikoteko lehenengo emakumezkoa: “Nik uste dut ere ingelesa.”

Bigarren bikoteko gizonezkoa: “Ze aukeratuko det, ba nerea! Normala den bezela! Hori ba, frantses bati edo ingeles bati galdetzen badiozu ba, berdina esango dizu, ez?”

Hirugarren gizonezkoa (frantsesez): “Horrela esanda, frantsesa aukeratuko nuke. Bestela, gaur egun esan liteke ingelesa dela.”

Laugarren bikoteko neska (gaztelaniaz): “Niretzat ingelesa izango zen errazena, baina ingelesa eta txineraren artean egongo litzateke.”

Laugarren gizonezkoa (gaztelaniaz): “Gustatuko litzaidaken hizkuntza nirea izango litzateke, jakina!”

Bigarren bikoteko emakumezkoa: “Demokratikamente botazioa in beharko litzake.”

Bigarren gizonezkoa (gaztelaniaz): “Ez zen ez batena edo bestearena izango, zer edo zer berria.”

Lehenengo bikoteko emakumezkoa (ingelese): “Zein hizkuntza? Ez dakit.”

Lehenengo bikoteko gizona (ingelesez): “Musika! Hizkuntza musika izango litzateke!”